



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Sal6n de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fond6n Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Torrillos
	Haizea Barandiaran Zubillaga
PSE-EE	Diego Barrasa Ruiz
	Larraitz Arriola Larrarte
	Maider Lainez Lazcoz
	Jos6 Luis Verdasco Gutierrez
EAJ-PNV	Ascensi6n Parr6n Peguero
	Aritz Alkain L6pez
	María Bel6n Moreno M6ndez
Elkarrekin Podemos	Imanol Goenaga Egibar
	Idoia Mikelez Alonso
	M ^a Sagrario Ruiz Fern6ndez
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	00000001
Eguna	2024/01/25
Hasiera	19.00
Amaiera	19.09

Idazkaria:

Unai Rekondo P6rez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

- 2023/11/27 eta 2023/12/20(e)an egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Onartzea, hasierako izaeraz, obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko udal ordenantza..
- Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako hotzarmenaren luzapena zioarekin Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuarekin

Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2573/2023 zenbakidunetik 2782/2023 zenbakidunera.
- Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Orden del Día:

- Lectura y aprobaci6n, si procede, de los borradores de las actas de la sesiones celebradas el 27/11/2023 y 20/12/2023.

Parte Dispositiva

- Aprobaci6n, con car6cter inicial, de la ordenanza municipal reguladora de la comunicacion previa de obras menores.
- Propuesta de aprobaci6n de la pr6rroga del convenio de colaboraci6n con la Diputaci6n Foral de Gipuzkoa - Departamento de Polítimas Sociales para la financiaci6n foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado en el municipio a personas calificadas como

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la n^o 2573/2023 y la n^o 2782/2023.
- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki



erutzen da.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Ongietorri. 2024ko lehenengo ohiko udalbatza honetara. Eta besterik gabe, udalbatzari hasiera emango diogu.”

1. 2023/11/27 eta 2023/12/20(e)an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2023/11/27 eta 2023/12/20 datetako batzarraldiei dagozkien aktak irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman dira.

2. Onartzea, hasierako izaeraz, obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko udal ordenantza.

Lizentziak ematea da toki-administrazioak herritarren jardueran esku hartzeko funtsezko kasuetako bat, prebentzio-kontrolako egintza den bidetik, administratuak lehendik duen eskubide bat deklaritzen baitu.

Udak honek egokitzen du obra txikiko lizentzien eskaera, tramitazio eta exekuzioaren kontrola arautzea, eta, horren barruan, kategoria berri bat ezartzea, obra txikien komunikazioa izenekoa. Kategoria berri hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.5 artikuluan jasotzen da, eta egikaritzeari dagokionez, hirigintza-ordenamenduan ahalik eta eragin txikiena dutelako aldiz aurretik udalari interesdunaren idatzizko jakinarazpena baino behar ez duten obretan aplikatuko da.

Ordenantza honekin, beraz, Andoingo Udalak hirigintza-baimenen izapideak azkartu nahi ditu, hiritarren itxaron denborak eta administrazio izapideak murriztuz.

Ordenantza hau jarraian aipatzen den legeriak Udalari emandako eskumenetan xedatzen da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua.

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik 2023ko abenduaren 4a datan hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak emandako aldeko txostena.

Aztertu da generoaren arabareko eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharra eta ulertu da ebaluazio hori ez dela beharrezkoa, kasu honetan Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aurreikusitako salbuespena baitago, hau da, ordenantzak ez du garrantzirik generoaren ikuspegitik, pertsonen zuzenean eragiten ez dielako.

Ikusirik, halaber, berdintasun teknikariak 2023ko abenduaren 5ean egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemaileak 2023ko abenduaren 21ean emandako aldeko irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi. Gaur hemen ekartzen dugun obra aurretiazko jakinarazpen honekin, obra txikien barruan sortuko dugu kategoria berri bat dela obra txikien komunikazioa izena duena, eta, bueno, kategoria berri honen barruan sartuko lirake hirigintza ordenamenduan, eragin txikia duten obra horiek. Eta hauentzat nahikoa izango da hemendik aurrera idatzizko jakinarazpen batekin.

“Hau da, azkenean aldatuko dena da, gaur egun obra txiki guztiak lizentzia bat behar dute, eta edozein izaerako obra txikia egiteko lizentzia eskaera bat egin behar da udaletxean, eta itxaron behar da azkenean udalak lizentzia hori eman arte obra hasi ahal izateko.



“Eta bueno, hemendik aurrera kategoria berri honetan, sartzen diren obra horiekin, bueno, ordenantzan daude zehaztuta zehazki ze obra sartzen diren kategoria berri honetan, eta hauetan nahikoa izango da jakinarazpen bat aurkeztearekin udalean, eta behin jakinarazpen hau aurkeztuta egonda, obrarekin hasi ahal izango da lizentzia eman arte itxaron behar izan gabe.

“Gero, bestetik, tasei dagokionez ez dago aldaketarik, orain arte bezala izango dira eta obra txikien barruan sartuta egongo dira.

“Eta bueno, hori da pixka bat ekarriko duen aldaketa, ez? Laburbilduz, eh, honen helburua da eta lortu nahi dena da hirigintza tramitazioa azkartzea eta herritarrak ez egon behar izatea hilabeteak zain edozein obra txiki burutzeko, orduan, gaur emango zaio hasierako onespina eta jendaurrean jarriko da 30 egunez. Eta espero dugu ahal bezain azkar martxan jartzea guztion onerako.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aho batez doan gaia da. Bai azpimarratu ibilbide onean doan ekimen bat dela. Nik uste dut asko hitz egin dugula pleno honetan hirigintzaz, bereziki administrazio orokorrean ez, baina bereziki Hirigintza Sailak, ze zailtasun dituen garaiz eta forman, herritarrei erantzuteko, zuzenean edo zeharka guztiak, pasatzen zaigu, epez kanpo, luze itxaron behar izatea, ez? Atasko hori zegoelako. Eta nik uste dut administrazio eraginkorra edo gobernu onen alde hitz egiten dugunean, nolabait herritarrekiko interakzio horretan lortu behar dugula sinplifikatzea, erraztea gauzak. Orduan, bide horretan doa. Beraz, hasierako hobespen bat ematen dugun arren, ba iruditzen zaigu ekimen interesgarria dela, eta hori elkarbanatu bakarrik.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko udal ordenantza.

2. Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espeditentea aztertu eta egoki irizitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3. Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

4. Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako hotzarmenaren luzapena zioarekin Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuarekin.

Kontuan hartuz, 2023/12/31n amaituko dela Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuarekin, udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako hitzarmenaren luzapena zioarekin, sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren 2023ko azaroaren 30eko txostena, non, besteak beste, adierazten baita 2024. urtean diagnostiko bat egingo dela etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioen katalogoa zabaltzeko aukera baloratzeko eta, horrek hitzarmena aldatzea ekar lezakeela.

Ikusirik aldaketak ez direla eginen eta hitzarmena aurreko urteetako baldintza beretan mantenduko dela.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2024ko urtarrilaren 09ko bileran emandako irizpena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemailearen 2024/01/09 datako irizpena.

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Bueno, etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketarako hitzarmena lehenengo aldiz 2021ean sinatu zen eta bi urteko iraupena izango zuen hitzarmena izan zen, bertan, jasotzen zen urtebeteko luzapena izateko aukera. Orduan, luzapen honetan sartuko ginatke eta



2024ko abenduaren 31rarte, indarrean egongo litzateke eta gainontzeko klausulak bere horretan mantentzen dira beraz, onartuko balitz.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatzeko proposamena onartzea, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Mendekotasuna duten pertsonen eta laguntza behar duten beste talde batzuei udalerrian ematen zaien Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmenaren luzapena.

Indarraldia: urte 1

Noiztik: 2023/01/01

Noiz arte: 2024/12/31

2.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Andoingo udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

3.- Hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, sinatuta.

5. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2573/2023 zenbakidunetik 2782/2023 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarrak aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2573/2023 zenbakidunetik 2782/2023 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi, muy buenas tardes a todas y a todos. Y queríamos hacerle una pregunta al señor Alcalde, Sr. Álvarez. Usted, cuando estábamos en campaña, nos indicó que, bueno, si fuera alcalde, la primera semana llamaría a varias reuniones para intentar encauzar problemas enquistados, entre los cuales estaba la cuestión de Etxebarrieta. Y bueno, no sabemos si se ha producido alguna de esas reuniones o no, porque no hemos tenido constancia de ellas. Y en estos ya más o menos 7 meses que llevamos, pues todavía a la Comisión de Urbanismo no se ha llevado este tema ni una sola vez.

“Entonces, que nos explicara un poco cómo estaba toda la situación. Eskerrik asko. Gracias.”

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Bueno, zuk ondo dakizun bezala, gaia korapilatsua da. Datorren ostegunean daukagu beste bilera bat. Bilera ezberdinak izaten ari gara, baina Hirigintzako Batzordera ez da eraman, ba bueno sukaldeko lan horretan ari garelako. Espero duguna da ahalik eta azkarren, bai hirigintzan eta bai bertako bizilagunei proposamen bat eramatea. Baina esaten dudana bezala, ba bilera ezberdinak edukitzen ari gara. Datorren ostegunean daukagu bilera bat. Orain, buruz, ez dakit, baina uste dut hemendik bi astea Jaurilaritzan ere. Fase horretan gaude eta zerbait konkretua dugunean bai Hirigintza Batzordera eta bai bertako bizilagunekin egingo dugu bilera bat.”

Lainez andreak, dio:

“Bai, datorren astean, cuando usted indica que el próximo jueves tienen una reunión, ¿se refiere al promotor?”

Alkate jaunak erantzuten du:



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2024/01/25

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 25/01/2024

“Alde batetikan, promotoreekin eta deia jaso dugun bizilagun batzuekin eta gero Jaurlaritzarekin hemendik bi astera.”

Berriro ere, Lainez andreak, esaten du:

“Entonces, entendemos que con el promotor ya se están dando avances y ya tiene el suficiente terreno para poder empezar a ejecutar o cómo está esa situación.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Esan dezakegu eta badakizue gai hauek oso diskretuki landu behar direla eta sukaldeko lanean dagoela gaia. Momentuz ezin dugu besterik esan.”

Jarraitzen du, Lainez andreak:

“Lo decíamos porque cuando nosotros también decíamos que estábamos con sukaldeko lana, en que estábamos trabajando en ello, se nos achacaba que no se trabajaba porque no se hacía público y no se daba a conocer, pues un poco en esa misma línea. Gracias.”

Alkate jaunak, dio:

“Bueno, nik uste dut hemen gaia bestelakoa izan zela. Ez dut polemikan gehiegi sartu nahi, baina sukaldeko lanarekin, gero bat-batean argazki batekin atera zen dena eta bueno guk behintzat, esan sukaldeko lana egin ondoren egingo duguna da, Hirigintza Batzordera eraman eta gero bizilagunekin bilera bat. Hori izango da gure prozedura edo aurreikusten dugun prozedura.

“Beste galderarik guri badago? Ba ez. Bueno ba amaitutzat emango dugu orduan.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.09 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria



EKS | CSV: **ESKU4c749d66-4326-4dca-835c-43e2b0c643aa**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>